

Iñaki Barrena

EHUKO IRAKASLEA

AHT Gelditu... ezina?

EZTABIDAEZINA. Hedabideen iritzi-
ETBko albistegiko esatariarentzat
kasu, Euskal Y-ren proiektua erantzun
ezina bihurtu da Inazio Uriaren hilke-
taren ostean. Dudak eta zalantzak han-
ditu beharrean, erailketa batek, beldurra eta
egonezina lar sortzeaz gain, proiektua blin-
datu egiten du bere promotoreen begietara.
Hamabost urte luzetan euskal ekologismoa
azpiegitura honen aurkako argudioz eta
mobilizazio ugariz aritu bada, ukazioa eta
ez ikusiarena izan dira erantzun ofizialak.
Inoiz ez da egon eztabaidaren
eta argudioen kontraste seriorik,
orain ezinezkoa dela diote.

GELDIEZINA. Ez da gauza erraza
horrenbeste diru publiko xahu-
tzen duen egitasmoa bertan
behera uztea. Interesak eta ikuse-
zinezko eskuen bultzadak pre-
sente dira oso. Dena den, Espai-
nia osoan gertatu ez den bezala,
hemen AHTren kontrako gizarte
mugimendu zabala eratu da, par-
taide ugari eta desberdinekin,
gehiengo sindikala eta Gasteizko
governu kide bat barne. Azken
udal hauteskundeetan, erreferen-
tziako gaia izanik, Euskal Y-ren
ibilbidean dauden 42 udalerrietatik
18tan AHTren aurkako jarre-
ra nagusitu zen. Agian, hori ez da nahikoa
proiektua geldiarazteko baina legitimazio



DANI BLANCO

gradu altua ematen dio oposizioari, jakina.
Balekin galtzen dena.

GARAITEZINA. Euskal gatazka ekologikoen
historia laburrean intrantsigentzien mitolo-
gia da nagusi. Egun hauetan, Azpeitiko hil-
ketaren ondotik, Lemoiz eta Leitzaran
gogora ekarri dizkigute, ETArean hildakoak
dira sinbolo bakarrak. Kurioso da oso
Itoiz ez aipatzea. Batzuk eskuak igurtzirik
ari ziren ea biolentzia armatua noiz agertu-
ko zen AHTren auzia estatuaren arrazoia-
ren ildotik bideratzeko. Eta gertatu da.

Berunezko argumentuek Leviathan indartu dute. Orain eta
hemen, balen eta biolentzia
armatuaren oihartzunekin ez
dira herritarren nahiak legitima-
tzen, ezta irabazten ere. Bide
okerra da hori. Politikaren ende-
katze ustela.

SOSTENGAEZINA. Nago AHTren
auzia militarizatzeak ez duela
ereduaren porrota gaindituko.
Luzeago, garestia, absurdua-
goa egingo da, hori bai. Eta fun-
tsean sostengagaitzagoa. Garraio
eredu honek ez du zentzurik
gure herrian, ez ekonomikoki, ez
ekosistemaren logikatik ezta
garraio politika sostengarri bate-
rako ere. Hori bai, istorio hone-
tan buztinezko oinak bustiago agertzen
dira. Garraio eredu dugu koska! ■

« Batzuk eskuak igurtzirik ari ziren
ea biolentzia armatua noiz agertzen

zen AHTren auzia estatuaren
arrazoia-
ren ildotik bideratzeko.

» Eta gertatu da. Berunezko
argumentuek Leviathan
indartu dute

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hau argitaratzerako, hi bide
dezente egin izango haiz.
Gaur goizean deitu zidak
hire seme Pellok, ihes egin duala, alde egin
duala, eskapo egin duala alegia, esateko.
Oraindik freskoa diat hire herenegungo deia. Mugikorra
itzali, eta burua kizkurtzen hasi zaidak hire norabideaz
asmatu nahian. Eta ziur nauk badakidala norantz egin
duan, hi Leandro bila abiatua haiz. Eta Pipa harengan-
dik urrun ez dela ibiliko jakitun, ehiztariarena egin nahi
izan duk, bi pieza tiro batez. Eta nolako piezak! Dagoe-
neko Leandrok leku egokia prestatua zeukak hiretzat
bere alboan. Uso pasa eta erreka ondoan. Kontu egin

Kaixo Tapa

ezak denbora dezente egin duela hor
hire zain, eta hura ezagututa, zirika
hartuko hau, eta nahasiko hau non
hagoen ez dakiala arte. Lasai hartu eta ez erotu. Pipa
bere aulkian jarria zain izango duk, azken *bakeradaz*
mintzo txokolate ontza esku artean duela. Musean,
des-
kartean egin beharko duzue laugarrena bildu bitartean,
Xaian ere, hi bortxaz eraman ondoren, nekez osatzen
dituk bi bikote. Tourrerako etxearena egin duk. Iazkoa.
Aurten, bat gutxiago ordaintzeko. Garestitzen ari zaiguk
bizitza, hala ere, hemen inork ez zeukak asmorik zuekin
musean egiteko. Holakotan sinestuna izan nahi nitek,
eta ipuinak bizi. Zozo beltz bat banuen... ■